

**HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2022/2023 ikasturtea**

**BELDURRAREN TRATAERA HAUR HEZKUNTZAN HAUR  
LITERATURAREN BIDEZ**

**Egilea:** Amaia Alberdi Sangroniz

**Zuzendaria:** Jon Kortazar Uriarte

**Leioan, 2023 ko Maiatzaren 24 ean**

## **AURKIBIDEA**

<b>UPV/EHU</b>	<b>2</b>
<b>1. Sarrera</b>	<b>4</b>
<b>2. Helburuak</b>	<b>6</b>
2.1 Helburu nagusia	6
2.2 Helburu espezifikoak	6
<b>3. Esparru teorikoa eta kontzeptuala</b>	<b>7</b>
3.1. Emozioak	7
3.2. Beldurra zer den	9
3.2.1 Beldurra Haur Hezkuntzan	11
3.3. Haur eta gazte literatura	12
3.3.1. Emozioak eta beldurra literaturan	13
3.4. Beldurrak eragindako nahasmenduak sahiesteko hezkuntza-jarraibideak	14
<b>4. Metodologia</b>	<b>15</b>
<b>5. Lanaren garapena</b>	<b>17</b>
5.1. Liburuaren azterketa	18
5.2. Haur Hezkuntzako gela batean diseinatutako esku-hartzea	21
5.3. Juan Kruz Igerabideri egindako elkarrizketa	23
<b>6. Emaitzak eta ondorioak</b>	<b>24</b>
<b>7. Erreferentzia bibliografikoak</b>	<b>26</b>
7.1. Aztertutako liburuaren erreferentzia bibliografikoa	26
7.2. Oinarrizko erreferentzia bibliografikoak	26

## BELDURRAREN TRATAERA HAUR HEZKUNTZAN HAUR LITERATURAREN BIDEZ

Amaia Alberdi Sangroniz

UPV/EHU

Beldurra bizitzaren osagai sahiestezina da, baina gizartean ez da honen inguruan hitz askorik egiten. Gure bizitzaren parte den arren, gai hori bigarren mailan geratu ohi da, eta ez zaio merezi duen garrantzia ematen. Gradu Amaierako Lan hau, egoera honi aurre egiteko asmoz sortu da. Lan honetan zehar, hainbat aditu eta egile ezberdinen uste eta iritziak batu dira, bai emozioen zein beldurraren ingurukoak, baita hauek literaturan daukaten garrantziarenak Juan Kruz Igerabideren liburu baten bidez. Adituen ekarpenen arabera esku-hartzen bat proposatu da, bakoitzak bere beldurrak ikusarazi ditzan eta beldur horiek izatea guztiz ohikoa dela barnera dezan. Azkenik, *Jonas eta hozkailu beldurtia* liburuaren idazlea den Juan Kruz Igerabideri galdetegi txiki bat egin da.

*Emozioak, beldurra, Haur eta Gazte literatura, Juan Kruz Igerabide*

El miedo es un componente inevitable de la vida, pero en la sociedad no es un tema que se trate demasiado. Aunque forma parte de nuestra vida, es un tema que generalmente queda en un segundo plano y no se le da la importancia que merece. Este Trabajo de Fin de Grado pretende abordar un examen sobre este sentimiento. A lo largo de este trabajo se han recogido las opiniones e investigaciones de diferentes expertos y autores, tanto de las emociones como del miedo, así como se analiza su importancia en la literatura a través de un libro de Juan Kruz Igerabide. En función de las aportaciones de los expertos se ha propuesto una intervención para que cada alumno visibilice sus miedos e interiorice que su existencia es totalmente habitual. Por último, se ha realizado una pequeña entrevista al escritor Juan Kruz Igerabide.

*Emociones, miedo, literatura infantil y juvenil, Juan Kruz Igerabide*

Fear is an unavoidable component of life, but in society we don't talk about it much. Although it is part of our lives, it is a topic that is generally left in the background and is not given the importance it deserves. This Final Degree Project was born with the intention of addressing this situation. Throughout this work we have collected the opinions and research of different experts and authors, both on emotions and fear, as well as analyzing its importance in the literature through a book by Juan Kruz Igerabide. Based on the contributions of the experts, an intervention has been proposed for each

student to make their fears visible and internalize that their existence is totally common. Finally, a short questionnaire was given to the writer Juan Kruz Igerabide.

*Emotions, fear, children's and young people's literature, Juan Kruz Igerabide*

## 1. Sarrera

Literatura txikitatik da gure bizitzen parte, hizkuntzaren erabilera eta irudikapen artistikoa ikastea erraztuz, baita eskola-eremuan hezkuntza-baliabide gisa. Eskola-eremuari dagokionez, funtsezkoa da ikasgelan irakatsi eta ikasteko prozesuan erabilitako literatura-lan egokiak aukeratzea, hau honela, hezitzaileak zeregin garrantzitsua dauka obrak aukeratzeko orduan.

Haurtzaroa etapa erabakigarria da haurren garapen emozionalean, eta beldurrak esperientzia komun eta esanguratsua izan daitezke. Haurren beldurrak aldatu egin daitezke: iluntasunarekin edo munstroekin lotutako beldurrak, kezka sakonagoak eta abstraktuagoak. Beldur horiek antsietatea eta haurren ongizate emozionalean eragin ditzakete, baita errendimendu akademiko eta sozializazioan ere.

Gaur egun, haur-literatura gai berrien erronkaren aurrean dagoela esan daiteke; izan ere, garai batean haurrentzako desegokiak ziren gaiak jorratzen hasi direlako, hala nola, heriotza, bakardadea, gaixotasuna, bullyinga, gerra, emigrazioa... Hala ere, oraindik ere pentsatzen dut ez zaizkiela behar adinako ikusgarritasuna ematen tabutzat hartzen ditugun gai horiei, eta, horren ondorioz, hainbat galdera egiten dizkiot neure buruari: Zer literatura mota eskaintzen ari gatzazkie haurrei? Haur literaturak edozein gairi naturaltasunez heltzeko aukera ematen du? Gehiegi babesten ditugu haurrak, eta, horregatik, ez diegu eskaintzen mingarriak izan daitezkeen gaiak jorratzen dituzten albumak? Galdera hauei erantzuna eman nahian, literaturaren bidez beldurrak nola landu daitezken lantzea erabaki nuen.

Egoera horren aurrean, funtsezkoa da hezkuntza-inguruneko beldurrei modu eraginkorrean eta ulerkerrean heltzea. Haur-literatura tresna indartsua da haur hezkuntzan beldurrak lantzeko eta gainditzeko. Liburuek espazio seguru eta irisgarria eskaintzen dute haurrek beren beldurrak azter ditzaten, pertsonaiekin identifika daitezen eta aurre egiteko estrategiak gara ditzaten.

Haurren garai honetan, emozioek hartzen duten garrantzia kontuan hartuta, haur literaturan beldurraren tratamendua aukeratu nuen, gizakiarekiko berezko emozioa

delako eta oso gutxitan aztertzen delako haurren esparruan. Era berean, beldurra naturaltasunez jorratu behar dela uste dut, gure esperientzian zehar sentitzen dugun beste edozein sentimendu eta emozio bezala.

Ikuspegi horren bidez, haurren ongizate emozionala sustatuko duen hezkuntza-ingurunea sustatu nahi da, haien beldurrak ulertzen lagunduko duena eta modu osasungarrian aurre egiteko tresnak eskainiko dizkiena. Horrela, haur-literatura aliatu baliotsua bihurtzen da haurren enpatia, sormena eta erresilientzia garatzeko, haien garapen integrala indartuz.

Bilboko Hezkuntza Fakultatean aurrera eraman den Gradu Amaierako lan honetan, aurretik aipatu bezala, Haur Hezkuntzako ikasleentzat zuzenduta dagoen eta beldurra lantzen duen ipuin bat oinarritzat hartuz, beldurrari hurbilpen bat egin da. Hain zuzen, Juan Kruz Igerabideren *Jonas eta hozkailu beldurtia* (Aizkorri, 1998) izan da erabilitako liburua. Lehendabizi, lanari hasiera emateko emozioen, beldurren eta literaturari buruzko informazioa jaso da, hainbat autoreren iritziak aztertuz. Lan honen enborra bi zati nagusitan banatuta dago, alde batetik, azken praktikaldiaz baliatuz, ikastola batean burututako esku-hartzea didaktikoa daukagu, eta beste alde batetik, aurretik aipatutako Juan Kruz Igerabide idazleari egindako galdetegi txiki bat. Galdetegi hau, liburuaren eta bertan lantzen den gai nagusiaren inguruko azterlan zehatzago bat egiteko helburuarekin da, baita liburuan jasotako informazioaren sakontasuna aztertu eta ulertzeko asmoz. Horrez gain, haurren beldurraren inguruko kontzientzia sakontzen eta ikuspegia zehaztea ahalbidetu du, gaiaren inguruan aztertze eta hau ulertzeko eta ondoren kritika argitzeko aukera emanez.

Amaitzeko, Gradu Amaierako Lan honen azken atalean, esku-hartze didaktikoan zein, elkarrizketan ateratako emaitza eta ondorioak aurkeztuko dira. Lortutako aurkikuntzak laburbildu eta aztertuz, lortutako emaitzen ikuspegi integrala eta koherentea emateko. Atal honek itxiera sendoa emango dio lanari, emaitza nagusiei eta horien garrantziari buruzko azken hausnarketa egiteko aukera emanez.

## **2. Helburuak**

### **2.1 Helburu nagusia**

- Beldur anitzak ezagutzea eta Haur eta gazte literaturako liburuak baliabide gisa erabiliz, hauek lantzea.

### **2.2 Helburu espezifikoak**

- Bakoitzak bere beldurrak identifikatzea.
- Beldurrak lantzeko esku-hartze bat aurrera eramatea.
- Beldur anitzak lantzen dituzten liburu berriak ezagutzea.

### 3. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

#### 3.1. Emozioak

Emozioei emandako definizioak anitzak dira, beraz zaila definizio zuzen bakarra lortzea, egile, liburu edo garai bakoitzaren arabera, hau aldatu egiten baita. RAEren arabera, emozioa “Alteración del ánimo intensa y pasajera, agradable o penosa, que va acompañada de cierta conmoción somática” da (Real Academia Española, 2014). Bestalde, Jose Antonio Marina-k *El laberinto sentimental* (1996) liburuan, emozioa sentimendu labur gisa definitzen du, normalean malkartsua eta agerpen fisikoekin, hala nola, asaldura, urduritasuna, taupadak, zurbiltasuna, gorritasua...


Jose Antonio Marina-ren eta Marisa López-en *Diccionario de los sentimientos* (1999) liburuan: “A la emoción se la considera la ‘conmoción, alteración o agitación repentina de ánimo, causada por alguna pasión, sea gozando vivamente, sea padeciendo con intensidad’. En la actualidad significa alteración afectiva intensa que acompaña o sigue inmediatamente a la experiencia de un suceso feliz o desagradable que significa un cambio profundo en la vida sentimental. Interés expectante o ansioso con el que el sujeto participa en algo que está ocurriendo. Alteración afectiva que consiste en un entrenamiento por sí mismo o por simpatía hacia los otros, por una prueba de cariño o estimación recibido por el mismo sujeto”. (1999, 414.or.).

Hirugarren definizio bat ere ikus dezakegu, “Emozioek egiten dute bizitza zirrargarri; emozioek ematen dizkiote epela eta ederra. Emozioak adierazten ez ditugunean, ezta bizitzen ere, bizirik iraun baino ez dugu egiten, ozta-ozta iraun ere. Aldiz, bizitza zirrargarria da emozioen bidegurutzea bizitzen dugunean: izua, tristura, amorrua eta poza. Emozioen bidegurutze deritzot oinarrizko lau emozioak hartzen dituen interfaseari: izua, tristura, amorrua eta poza. Beldurra eta tristura udazkena eta negua bezalakoak dira; gure baitara biltzen gaituzte. Aitzitik, amorrua eta poza udaberria eta uda bezalakoak dira, eta kanpora ateratzen gaituzte. Izuan eta tristuran, uzkurtu egiten gara, egun ilunetan bezala; amorruan eta pozean, luzatu egiten gara, egun eguzkitsuetan bezala [...]



Oinarrizko lau emozio horiek egokitzeko eta bizirik irauteko mekanismoak dira, eta garrantzitsua da deszifratzen ikastea zer gorputz hizkuntza dagokion emozio orori. Izuak kontuz ibiltzeko esaten digu, eta tristurak, zerbait galdu dugula; amorruek galdutako eremua berreskuratzen laguntzen digu, eta poza hazi egiten da partekatzen dugunean. Emozio oro, bere horretan, ez da ona, ez txarra ere; den hori baino ez da. Bizitzen baditugu, orekatu egiten gaituzte; erreprimitzen baditugu, izua antsietate kroniko bilakatzen zaigu; tristura larria, depresio; amorruek, bortxa suntsitzaile (batzuetan boterea duenak zurikeriaz erabilia); eta poza, berriz, neurrigabeko euforia buruarin” (Bizkarra, 2018, online).

Rafael Bisquerra-ren (2003) hitzetan, emozio bat honela gertatzen da: 1) Informazio sentsorialak garunaren erdigune emozionaletara iristen dira. 2) Horren ondorioz, erantzun neurofisiologikoa ematen da. 3) Neokortexak informazioa interpretatzen du. Mekanismo horren arabera, oro har, nahiko ados dago emozio bat organismoaren egoera konplexu bat dela uste izatearekin. Egoera konplexu horren ezaugarria eszitazioa edo asaldura da, eta erantzun antolatu bat eskatzen du. Emozioak kanpoko edo barruko gertaera bati erantzuteko sortzen dira. Laburbilduz, bizipen emozionalaren prozesua honela eskematiza daiteke:



1.taula: Bizipen emozionalaren prozesua

Rafael Bisquerra-k *Educación emocional y competencias básicas para la vida* (2003) liburuan, emozio batean hiru osagai daudela aipatzen du: neurofisiologikoa, jokabidezkoa, kognitiboa. Neurofisiologikoan, takikardia, izerditzea, hodi-uzkurdura, hipertentsioa, tonu muskularra, gorritasuna, ahoan lehortasuna... bezalako erantzunetan

agertzen da. Hauek guztiak gizakiarentzat kontrolaezinak diren erantzunak diren arren, erlaxazioa bezalako teknika egokien bidez prebenitu daitezke. Gizabanako baten portaera behatzeak zer emozio mota jasaten ari den ondorioztatzea ahalbidetzen du. Aurpegi-adierazpenek, hitzik gabeko hizkuntzak, ahots-tonuak, bolumenak, erritmoak, gorputzaren mugimenduek... emozio-egoerari buruzko nahiko zehaztasun-seinaleak ematen dituzte. Osagai hau disimulatzen saia daiteke. Osagai kognitiboa edo bizipen subjektiboa da batzuetan sentimendu esaten zaiona. Beldurra, larritasuna, amorrua eta beste hainbat emozio sentitzen ditugu. Osagai kognitiboaren ondorioz, egoera emozional bat kalifikatzen dugu eta izen bat ematen diogu. Emozioen etiketatzea hizkuntza menderatzeak mugatzen du. Introspektzioa batzuetan besteen emozioak ezagutzeko metodo bakarra denez, hizkuntzaren mugek muga handiak ezartzen dizkiote ezagutza horri. Baina, aldi berean, zaildu egiten du norberaren emozioez jabetzea. Defizit horiek «ez dakit zer gertatzen zaidan» sententzia eragiten dute. Horrek ondorio negatiboak izan ditzake pertsonarengan. Horregatik da garrantzitsua, besteak beste, norberaren emozioak eta hiztegi emozionala hobeto ezagutzea helburu duen hezkuntza emozionala.

### 3.2. Beldurra zer den

Lanarekin aurrera egin aurretik, ezinbestekoa da beldurra emozioa aipatzea, ikertzeko gaia delako. Beldurra zer den definitzea konplexua da, pertsona bakoitzak honi buruz dituen pertzepzioengatik eta baita beldurra esperimintatzeko eta adierazteko modu desberdinagatik ere.

Beldurra egiazko nahiz irudipenezko arriskuaren aurrean sortzen den urduritasunezko egoera da. (Euskaltzaindia Hiztegia, 2015). Ana Gutierrez eta Pedro Morenoren (2012) hitzean beldurrak gure begiek ikusten dutena baino haratago ikusteko eta inguruan gertatzen edo gertatzen ez dien gauzak direnak baino handiagoa egiteko gaitasuna du, eta emozio normala izateaz gain, bizirik irauteko beharrezkoa ere bada.

Jose Antonio Marina-k *El laberinto sentimental* (1996) liburuan aipatzen duenaren arabera, beldurra gure behar, nahi edo proiektuen dinamismotik sortzen da. Beldur gara

hiltzeko, porrot egiteko, maite duguna galtzeko. Batzuetan oso ondo ezagutzen dugu gure beldurren arrazoiak, baina beste batzuetan ez dira beldur logikoak, psiko-logikoak baizik. Askotan beldur horiek logika intimo eta ezezagunetatik datoz. Gure asmoek gure beldurren esparrua definituko dute. Sortzetiko beldurrak eta nahi gabe ikasitako beldurrak daude, mekanismo autonomo gisa funtzionatzen dutenak.

Rafael Bisquerra et al. (2011) autoreek diotenez, beldurrak pertsona askori eragiten die eta ondorearen arrazoi nagusietako bat da. Denok daukagu beldurra noizbait. Beldurra gizakiek eta animaliek partekatzen dugun oinarritzko emozioetako bat da. Beldurra oinarritzko emozioari lotuta, familia handi bat osatzen duten emozio multzo bat ateratzen da, hala nola, izua, kezka, sustoa, ikara, urduritasuna, tentsioa, antsietatea, fobia, estresa...

Beldurrak, egoera bati aurre egiteko ez dugula behar adina errekurtsio adierazten du. Errealitate horri aurre egiteko baliabideak eskuratzen ditugun heinean, beldurra txikitu egiten da, eramangarriago bilakatuz, eta kasu batzuetan desagertu ere egiten da. Aurre egin ezean, beldurrak beste bi erreakzio ere eragin ditzake pertsonarengan: blokeoa batetik, eta ihesa bestetik. (Hik Hasi, 2018)

Berriz ere Bisquerra et al. (2011) autoreen hitzei erreparatu, beldurra zorientasunaren beste muturrean dago. beldur-giroa hainbat arrazoiengatik sor daiteke; azterketetarako beldurra, irakasleari beldurra, zigorrei beldurra, ikaskideei beldurra (bullyinga)... Zaintzea eta sentzibilitatea izatea komeni da, segurtasun-giro batean beldurrei aurre egiteko.

Jose Antonio Marina-ren (1996) hitzak oinarri hartuta, beldurra ekintzaren zirkuituan agertzen da. Beldurraren estimuluek burutazioen prozesu berri bat abian jartzen dute. Beldurrak ekintza bultzatzen du. Animaliek hainbat jokabide dituzte arriskua saihesteko. Ihes edo eraso egiten dute eta baketze-ekintzak egiten dituzte. Ekintza hauetako edozeinekin, beldurra moteldu egiten da, aldiz, arriskutik ihes egin ezin dugunean edo nahi ez dugunean intentsitatea handitzen da. Gure kontzientziaren gertaera guztia berrantolatzen duten beldurrak sentitzen ditugu. Arriskuak arreta esklabo bihurtzen du, eta subjektuari ia ezinezkoa egiten zaio beste zerbaitetan pentsatzea.

Askotan beldurra sortzen duena ez da egoera bat, egoera bati aurre egin behar izatea baizik. Orduan beldurra oso arrazoitzaile bihurtzen da, aitzakietan emankor.

### **3.2.1 Beldurra Haur Hezkuntzan**

Maria Dolores Perez-en (2009) hitzetan, Haur Hezkuntzako haurren beldurrei erreparatuz gero, askotan, itxurazko arrazoirik gabe sortzen direla dio, iragar daitekeen eboluzio-sekuentzia baten arabera garatzen dira, eta denboraren poderioz desagertu edo txikituz joaten dira. Esan daiteke beldur horiek eboluzionatu egiten dutela garapenaren etapa guztietan zehar, eta, beraz, hauek aldatu egiten dira adinaren arabera.

Ana Gutiérrez eta Pedro Moreno (2012) egileek, haurraren garapenaren etapa bakoitzean beldur mota desberdinak agertzen direla baieztatzen dute, eta horiek bi taldetan banatzen dituzte. Batetik, lehen haurtzaroko beldurrak, lehen urtetik hiru urtera artekoak, eta, bestetik, eskolaurreko etapakoak, hiru urtetik bost urtera bitartekoak.

Lehen haurtzaroari erreparatuz gero, haurrak, sei hilabete bete arte ez dira hasten beldurra adierazten. Adin horretatik aurrera hasten dira beldurrak sentitzen, hala nola, arrotzei, altueri eta abere eta zarata gogorrei. Urte bat eta bi urte eta erdi bitartean areagotu egiten da gurasoengandik banantzearen beldurra, eta ezezagunenganako beldurra gehitzen zaio.

Haurra hazi ahala, beldurrak pixkanaka desagertzen joatea da ohikoena, baina kasu batzuetan nerabegarora eta helduarora arte iraun dezakete, herabetasun itxura hartuz. Kasu murrizagoetan, gizarte-fobia gisa agertu daiteke.

Eskolaurreko etapan, haurraren harremanak zabaldu egiten dira, ekimena sustatzen da, eta autonomia areagotzen da. Haurraren beldurren eboluzioa hasten da, aurreko etapakoak mantenduz eta, beldurra sortzeko gai izan daitezkeen estimuluak areagotuz. Haurraren garapen kognitiboarekin batera doa hori, irudimenezko estimuluak, munstroak, iluntasuna, mamuak edo zinemako pertsonairen bat eszenaratzea

ahalbidetuz. Animaliekiko beldur gehienak etapa honetan hasten dira garatzen, eta helduarora arte iraun dezakete.

Haurren garapenaren zenbait ezaugarriak eta garapenaren testuinguruak lagundu egiten dute eboluzio-beldurren agerpena azaltzen: heldutasunean eta ikaskuntzan izandako aurrerapenek, nerbio-sistemaren bilakaerak eta pertzepzio-gaitasunaren heldzeak, haurrak arriskuen pertzepzio hobea izatea eragiten dute. Haurrak bere pertzepzio-eremua handitzen duen heinean, bat-bateko beldur-erantzunak agertzen direla ikus daiteke. (Perez, 2009)

### **3.3. Haur eta gazte literatura**

Gradu Amaierako Lan honen izenburua, beldurraren trataera Haur Hezkuntzan Haur Literaturaren bidez denez, ezinbestekoa da Haur eta Gazte literaturan murgiltzea. Asko eztabaidatu da haur literatura benetako literatura den ala familia honetako anaia pobrea eta arlotea den haurrentzako idazten dena literatura izango bada, hau da, letraz osatutako ura, magikoa, estetikoa, ulergarria eta erakargarria izango da. Orduan izango da benetako edabe. Horrezaz gain, fantasia, umorea, ironia, misterioa, lilura eta xarma baldin badauzka, orduan koktel literario ezin hobearen aurrean aurkituko gara, dudarik gabe. (Zubeldia, 2000)

Etxaniz eta Lopez Gaseni (2001) egileen ustez, haurrak, bere bizitzako lehenengo urteetan, etengabeko informazioa jasotzen du; bere garapenerako behar-beharrezkoa eta garapen horren oinarria izango duen informazioa. Hau, era eta iturri ezberdinetatik jasotzen du, eskolan, etxean, kalean dabilenean, jolasetan, eguneroko ekintza ugarietan. Horietako bat, zalantzarik gabe, irakurketa dugu. Haurra liburuen bidez joaten da bere nortasuna eraikitzen, mundua ezagutzen, hizkuntza hobetzen, plazera eta estetikaren arloan murgiltzen...

Berriz, Zubeldia (2001) autorearen hitzetan, haurrentzat idazten denean, normalki klabe berezi batean idazten da, irakurlearen adina eta istorioa jasotzeko duen ahalmena gogoan hartuz. Gerta daiteke haurrentzat edo gazteentzat idatzitako liburu batzuk

helduentzat ere interesgarriak izatea edo alderantziz. Baina helduentzat idatzitako liburua ez da derrigorrez umeentzat ere egokia eta interesgarria izan behar.

### 3.3.1. Emozioak eta beldurra literaturan

Literaturan, emozioen izaera jarraitua duen eta aldakortasun historiko-kulturala aitortzen duen irudikapen-eredu bat sortzea lehentasunezko helburua da, gizabanakoen bizitza emozionala, garaiak eta kulturak zehaztutako baldintzapenetatik isolatzeko. Kontuan izan behar da testu batean afektuak eta afektibitate-polaritatea ez direla egonkor mantentzen. Izan ere, kontrako emozioak askotan paraleloki adierazten dira (Rábade, 2015).

Emozioen lanketarako hainbat baliabide didaktiko daude, eta literatura horietako bat da, honen harira, Rafael Bisquerra-k, *Psicopedagogía de las emociones* (2009) liburuan, ondorengoa aipatzen du: Seguruenik literatura izango da emozioei buruzko orri-bolumen handiena duen artea. Lehenik eta behin, maitasuna, baina baita haserrea, beldurra, larritasuna ere, presente egon dira literaturan Eskilo, Sofokles eta Euripidesen garaietatik, hasita, Shakespeare, Molière, Goethe eta beste autore askorengandik igarota, gaur egunera arte. Honen harira, Osoro (2004) autorearen hitzetan, Ipuinak barne-lasaitasunerako eta geure gatazkak ulertzeko giltza horietako bat izan daitezke. Horien bidez, haurrak istorio desberdinak ezagutzen ditu, eta horietan ulertuko du, ez dagoela bakarrik, gertatzen zaiona normala dela eta denek sentitzen, sufritzen, gozatzen eta barre egiten dutela barneratuko du.

Ipuinak baliabide bikainak dira haurrak, bakarrik edo helduaren bitartekaritzarekin, bere beldurrak gainditu ahal izateko. Haur Literaturan, haurrak bere esperientzia eta beldur sentimenduak zeharkatzen dituzten pertsonaia ugari aurkituko ditu. Testuak eskaintzen duen gatazka konpontzeak irakurlearentzat lagungarria izango da, aurretik aipatu bezala, haurrari gertatzen zaiona ohikoa dela ulertarazten lagunduko dio. (Osoro, 2004). Rábade-ren (2015) ustez aldiz, irakurketaren bidez, irakurleak lotura emozional sakona egiten du irakurritakoaren eta bizi izandako esperientzien eta egoeren artean. Literatura-interpretazioetan, emozioak ez dira idazle batek obra batean kokatzen dituen

zerbait, baizik eta irakurle batek irakurketa-ekintza aurrera eramanez gero, ematen diren ondorio kalkulaezinak.

### **3.4. Beldurrak eragindako nahasmenduak sahiesteko hezkuntza-jarraibideak**

Maria Dolores Perez (2009) autoraren arabera, gehienetan beldurrak berez desagertzen dira. Haurra bere ikasketetan heltzen eta aurrera egiten doan heinean, konturatzen da gauza batzuk ez direla benetakoak, ezta posibleak ere, segurtasuna eta autokontrola bereganatzen ditu. Prozesu honetan, haurra inguratzen duen hezkuntza-giroa funtsezkoa da, eta beldurren aurrean erabiltzen diren jarraibideek haurrak bere beldurrak gainditzea azkartu edo, aitzitik, oztopatuko dute. Jarraibide horiek disfuntzionalak direnean, beldurrak arazo edo nahasmendu bihurtu daitezke. Hona hemen, beldurraren nahasmenduak sahiesteko jarraibide batzuk:

- Afektibitate-segurtasuneko giro orokorra eskaintzea
- Lasaitasun giroa mantentzea
- Haurrari goraipatua izateko eta jarduera arrakastatsu eta atsegingarriak egiteko aukera eskaintzea
- Haurraren independentzia sustatzea
- Beldurra diziplina-faktore gisa erabiltzea saihestea
- Behaketa bidezko beldurren ikaskuntza-egoera saihestea
- Haurra ez behartzea objektu beldurgarriari aurre egiteko
- Beldur denean haurra ez indartzea
- Egoera ez dramatizatzea
- Objektu beldurgarriari pixkanaka aurre egiteko aukerak ematea haurrari

#### 4. Metodologia

Lanaren garapena aurrera eramateko, lehenik eta behin, hainbat autore ezberdinen gai honi buruzko ideiak aztertu dira. Horretarako, hainbat liburu, aldizkarietako autikulu eta iturri bibliografiko arakatu. Bildutako informazio guzti hori marko teorikoa egiteko baliagarria izan da. Ondoren, lanaren enborrean, beldurraren gaia jorratzen duten ipuinen bilaketa txiki bat egin da eta liburu horietatik bat aukeratu da, *Jonas eta hozkailu beldurtia* (Aizkorri, 1998) hain zuzen. Behin liburua aukeratuta eta eskuratuta izan ostean, honen irakurketa eta lanketa sakon bat egitea izan da ondorengo betebeharra. Gai nagusia beldurra denez, honen inguruko hainbat informazio eta azalpen teoriko bilatzea ezinbestekoa izan da.

Maria Dolores Perez (2009) autorearen hitzekin jarraitzen badugu, beldurra normalean desatseginak diren sentsazio multzo gisa defini daiteke, eta benetakotzat hartzen diren arriskuen aurrean abian jartzen direnak, defentsa- edo babes-motako erantzunak sortuz. Erantzun horiek erreakzio fisiologiko, motor eta adierazpen kognitibo-subjektiboek multzo batean agertzen dira. Erreakzio fisiologikoak sintoma multzo bat dira, hala nola takikardia, giharretako tentsioa, dardarak, izerdia, zurbiltasuna, eztarriko eta ahoko lehortasuna, urdaileko goragale-sentsazioa, arnasketa azkarra edota arnasa hartzeko zailtasunak.

Maria Dolores Perez (2009) autorearen iritziak gehituz, haurren beldurrak, askotan, itxurazko arrazoirik gabe sortzen dira, iragar daitekeen eboluzio-sekuentzia baten arabera garatzen dira, eta denboraren poderioz desagertu edo gutxitu egiten dira. Beldur ohikoenak, banantzeari, arrotzei, animaliei izaten dira, beldurra haur gehienetan ez da esperientzia normaletatik haragoko gertaeretatik gertatzen; kasu batzuetan ordea, esperientzia berezien ondoren bakarrik gertatzen dira.

Aurretik aipatu bezala, gehienetan beldurrak berez desagertzen dira. Haurra heltzen eta ikasten doan heinean, gauza batzuk benetakoak eta posibleak ez direla jabetzen da, eta segurtasuna eta autokontrola lortzen ditu. Prozesu horretan, haurren hezkuntza-giroa funtsezkoa da, eta beldurrak daudenean erabiltzen diren hezkuntza-jarraibideek azkartu



egingo dute hura gainditzea edo, aitzitik, oztopatu. Jarraibide horiek disfuntzionalak direnean, beldurrak arazo edo nahasmen bihur daitezke. (Perez, 2009)

*Jonas eta hozkailu beldurtia* (Aizkorri, 1998) liburu hau oinarritzat hartuz, esku-hartze bat sortu da eta hau bost urteko bi geletan burutu da. Esku-hartze honen helburua beldurrei ikusgarritasuna ematea eta hauek ezagutzea izan dira nagusiki. Lau jarduera nagusiz osatuta dago, hasteko, haurrentzako beldurren inguruko galdera sorta bat prestatu da, bakoitzak bere beldurren inguruan hitz egin ondoren nik ere nire esperientzia partekatu dut beraiekin. Jarrartzeko aukeratutako ipuinaren irakurketa egingo da eta azkenik, haur bakoitzak bere beldurra adierazteko marrazki bat sortuko du.

Ikasleen beldurrak ezagutu ondoren, galdetegi txiki bat sortu da Juan Kruz Igerabiderentzat, *Jonas eta hozkailu beldurtia* (Aizkorri, 1998) liburuaren idazlearentzat hain zuzen. Azkenik, lanari amaiera emateko, bilatutako informazioaz baliatuz egindako esku-hartzearen eta galdetegiaren inguruko gogeta pertsonala eta lortutako emaitza eta ondoriak eraiki dira.

## 5. Lanaren garapena

Lanaren atal hau hiru zati nagusitan banatuta dago, lehenik eta behin, lanaren oinarria den *Jonas eta hozkailu beldurtia* liburuaren azterketa bat egingo da, bertan, istorioko ideia esanguratzuenak biltzeko liburuaren laburpena, eta, beldurraren inguruan hausnartzeko istorian zehar beldurra adierazten duten ezaugarriak ere jasoko dira. Liburuaren azterketa egin ondoren, azken praktikaldiaz baliatuz, ikastolan burututako esku-hartzea eta hau osatzen duten lau jarduerak sakonki azalduko dira. Aurrera eramandako proposamen honen helburu nagusiak, haurrek beldur desberdinak ezagutzea eta hauenganako daukagun konotazio negatiboa eta tabua alde batera uztea izan dira. Esku-hartze hau Amorebieta-Etxanoko ikastetxe bateko bost urteko bi geletan eraman da aurrera, erantzunen artean ahalik eta anistazun handiena lortzeko asmoz. Talde bakoitza hogeita bost ikasle osatzen dute, bi taldeetan mutilak nagusituz, lehenengo talde hau, 15 mutilek eta 10 neskek osatzen dute eta ikasle hauei erreparatuz gero, orokorrean oso langileak eta era autonomo batean lan egiteko ohitura duten ikasle betatakoa da, bigarren taldeari erreparatuz gero, 14 mutilek eta 11 neskek osatzen dute eta lehenengo taldearekin alderatuz, talde konplexuagoa dela esan daiteke, hemen laguntza berezia jasotzen dute hiru ikasle daudelako. Talde handiak direla kontuan hartuta, anistazun handia izatea dakar, eta hori jasotako erantzunetan ikusteko aukera izan dut, hala nola, ikasle bakoitzaren izaeran eta baita haur bakoitzaren garapenean ere. Bi taldeak orokorrean, oso parte-hartzaile eta langileak dira, jakin-min handia daukate gauza berriak ikasteko eta momentu oro aktiboki aritzen dira gelan proposatzen diren jarduera guztietan parte hartzen, beraz esku-hartze honetan ere gogotsu parte hartzeak emaitza onak jasotzera eraman dit.

Beste alde batetik, esku-hartzea egiteko erabili den *Jonas eta hozkailu beldurtia* liburuaren idazlea den Juan Kruz Igerabideri egindako galdetegia eta jasotako erantzunen azterketa egingo da. Galdetegi hau bost galderaz osatuta dago. Igerabide, Adunan (Gipuzkoa) jaio zen, 1956an. Euskal Filologia sailean Euskara Teknikoko irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean, Filologian Doktorea. Urte askotan aritu izan zen haur eta gaztetxoekin irakasle lanetan. Literatura arloan ikerketak egin izan ditu haur-literaturan, batez ere poesia aztertuz. Literatura sortzeko jarduera Azkue Saria

irabazi zuenetik egin izan du, baina haur- eta gazte-literatura lantzeko grina OHOk irakasle zela biztu zitzaion, eta idazlerik esanguratsuenetariko bat bihurtu zen bera.

### 5.1. Liburuaren azterketa

*Jonas eta hozkailu beldurtia*, Juan Kruz Igerabidek 1998an argitaratutako Haur eta Gazte literaturan parte den istorio bat da. Liburuan, hiru urteko mutil baten istorioa kontatzen da, bere ama erosketak egitera doa eta Jonas bakar-bakarrik gelditzen da etxean, bakarrik dagoen bitartean, sukaldetik soinu arraroak entzuten hasten da, eta hauek bere etxeko hozkailutik datozela ondorioztatzen du. Egoera horretan egongo litzatekeen edozein ume bezala, Jonas hozkailuaren barruan gerta litezkeen gauza beldurgarri guztiak imajinatzen hasten da. Bere buruari hainbat galdera egiten dizkio, ea munstrorik edo beste edonolako izaki arrarorik dagoen hoizkaluan ezkutaturik. Gero eta beldur handiagoa dauka eta bere biotza taunpa! taunpa! dabilela azpimarratzen du behin eta berriz, horrez gain beldur garenean egin ohi ditugun eta gure gorputzak izaten dituen beste hainbat jarrera ere deskribatzen ditu. Beldurrak irensten du Jonas eta etxeko gauza guztiak ere beldurrez daudela iruditzen zaio. Azkenean, ama dendatik bueltatzean berarengana doa korrika eta Jonas eta baita taunpa taunpaka ibili den bere bihotza asko lasaitzen dira. Amari gertatutakoaren berri ematen dio, ama zuzen-zuzenean doa hozkailura eta atea irekitzen du, Jonasi hozkailuan ezer ez dagoela erakuzteko, ondoren hozkailuak egiten dituen dardarak motorra gelditzen delako egiten dituela azaldu dio eta hau egiaztatzeko, botoi bat jiratu eta hozkailua piztu du besta aldera jiratu eta hozkailua itzali egin da eta itzaltzean dardara egin du eta azkenik, jonasek ere jiratu du botoia alde batera eta bestera, hainbat aldiz errepikatu ostean asko lasaitzen da. Jonasen bihotza ere asko lasaitu da, ez du taunpa! taunpa! egiten ttaupa-ttaupa baizik.

Beldurrari buruzko istorio soil bat baino geiago dela ikusi dugu, Jonasen esperientzien bidez, egileak beldurrei aurre egiten eta hauek hobeto ulertzen gainditu daitezkeela erakusten digu. Gazteei, ausardieren, jakin-minaren eta arazoak konpontzearen mezua helaraztea da liburuaren helburu nagusia. Istorioan zehar erabiltzen den idazkera atsegin eta dibertigarriaren estiloarekin, Juan Kruz Igerabidek haurren arreta guztiz bereganatzea lortzen du, haien beldurrei buruz gogoeta eginaraziz eta horiei aurre egiteko ikuspegi positiboa eskainiz.

*Jonas eta hozkailu beldurtia* aztertzen hasi aurretik aipatu beharra dago, haurrek helduen sentimendu berberak dituztela, baina askotan hauek adierazteko hitzak falta zaizkie. Hau horrela dela kontuan hartuz gero, ipuin honetan Juan Kruz Igerabidek bere hitzak jarri ditu Jonasek daukan beldurraren sentimendua azaltzeko.

Istoria umorez hasi eta amaitzen den arren, Jonasek etxeko bakardadean sentitzen duen beldurra pixkanaka-pixkanaka haziz doa une oro, izu bihurtzen den arte. Eta progresio horretan, beldurra bihotzetik eskuetara pasatzen zaio, eskuetatik begietara, eta begietatik burura... Hozkailua ere beldur da, eta ikarak dar-dar egiten du; izan ere, baliteke barruan otso bat izatea, gordetzen duen janari guztia janez. Eta orduan, zer egin etxean bakarrik zaudenean eta otsoa datorrenean?

Bestalde, istorio simple eta hurbil hau dagokion hizkuntzarekin eta hitz zehatzekin kontatua dago; adibidez, hasieran Jonasi bihotzak “taunpa! taunpa!” egiten dio, bortitz eta azkar, baina amaiera aldera amaren etorrerak hurraren larritasuna arintzen duenean taupadak lasaitu egiten dira eta bihotzak taunpa! taunpa! egin beharrean ttaupa-ttaupa arin bat egiten dio. Hizkuntzari erreparatuz gero, hau bizia da, erritmikoa, egunerokoa, eta narrazio baten itxurapean eskaintzen ditu. Baina, narrazioaz eta poesiaz gain, modernitatea eta tradizioa ere guztiz integratuta daudela ikus daiteke, betikoak diren sentimenduak ageri dira, hala nola, beldurra eta bakardadea, eta hauek otsoaren presentziak areagotua eta gaur egungo egoerara egokitzen dira.

Aipatzekoa da, erabilitako hiztegia oso interesgarria eta baliotsua dela dela haurrentzat beldurrarekin lotutako adierazpen eta deskribapen sorta zabala sartzen baitu. Istorian zehar, egileak, beldur garenean gure gorputzak egin ohi dituen gauzak eta sententziak bizi-bizi adierazten ditu:

“Bularra hazkatu du. Bihotzak taunpa! taunpa! egiten dio. Goxo-goxo igurtzi du bularra, baina bihotzak gero eta taunpa! taunpa! handiagoa egiten dio” (Igerabide, 1998, 6.or.).

“Jonasek bularra igurtzi eta igurtzi, eta hala ere ezin du bihotza lasaitu” (Igerabide, 1998, 8.or.).

“Esku beldurtia beste eskuaren bila doa lasterka. Beste eskua ere beldurrez beterik dago. Bi eskuak elkar besarkatu dute, dardarka, eta elkarri igurzten hasi dira goxo-goxo” (Igerabide, 1998, 10.or.).

“Eskuak begietara eraman ditu, ez ikusteko. Jonasek begiak estali ditu. Begiak ere beldur dira, eta ez dute begiratu nahi” (Igerabide, 1998, 14.or.).

“Jonasek rau! egin du jauzi, eta bere gelara doa arin-arin. Atea itxi eta ohe azpian ezkutatu da. Jonasek belarrietara eraman ditu eskuak. Ez du ezer entzuten” (Igerabide, 1998, 22.or.).

Deskribapen horiei esker, hurrek hobeto identifika eta uler ditzakete beldurrekin lotutako seinale fisikoak, hiztegi emozional aberatsagoa eta beren emozioen kontzientzia handiagoa garatzen lagunduz. Gainera, egileak beldurra modu sortzailean adierazten duten adierazpenak eta metaforak ere sartzen ditu, irakurketa entretenigarriagoa eta bizigarriagoa izan dadin. Azken batean, liburuak hiztegi aberasgarria eskaintzen du, entretenitu ez ezik, hurrak emozioen munduan hezten dituen eta beren beldur sentimenduak modu zehatzagoan eta aberasgarriagoan adierazteko eta komunikatzeko hizkuntza tresnak eskaintzen dizkiena.

Guzti horrez gain, Mikel Valverderen lana bikaina ere aipatzeko da, orrialdez orrialde testuarekin batera agertzen diren irudiek indar handia ematen diote Igerabidek sortutako testuari, irakurtzen ari garenari ulerkortasun handiagoa emanez. Jonasen beldurrak, eta keinuak era ezin hobean adierazten ditu. Beraz laburbilduz, primerako lan literario baten aurrean gaudela esan daiteke.

## 5.2. Haur Hezkuntzako gela batean diseinatutako esku-hartzea

Beldurra gai nagusia denez, eta aurretik aipatu bezala, hirugarren eta azken praktikaldiaz baliatuz, esku-hartze bat egin da Amorebieta-Etxanoko ikastetxe bateko bost urteko bi geletan, eta hau lau jarduera nagusitan banatuta dago. Esku-hartze honen helburu nagusiak, haurrek beldur desberdinak ezagutzea eta hauenganako daukagun konotazio negatiboa eta tabua alde batera uztea izan dira. Hemen oinarri bezala, Juan Kruz Igerabide Haur eta Gazte Literaturako ideazlearen *Jonas eta hozkailu beldurtia* (1.eranskina) erabili da, eta honen harira hainbat jarduera desberdinak egin dira.

Esku-hartze hau aurrera eramateko prestatutako lau jarduera hauek, hiru atal nagusitan banatuta daudela esan daiteke. Lehenik eta behin aurrezagutza fasea daukagu, honen helburua beldurren inguruan hitz egitea eta beldur desberdinak ezagutzea izango da, bi jarduerak osatzen dute. Ondoren bigarren eta garrantzitsuena, esku-hartzearen oinarria daukagu, hemenn, *Jonas eta hozkailu beldurtia* ipuinaren irakurketa egin da gelan ikasleekin eta amaitzeko, azken zati hau, adierazpen bezala izendatu daiteke, jarduera honetan, ikasleek landutako beldur desberdinak baita beraien beldurrak ezagutzeko aukera izan ondoren, marrazki baten bidez hauek adierazi behar izan dituzte.

Esku-hartzeari hasiera emateko, lehenik eta behin, ikasleek beldurraren gaiarekin lehenengo hurbilketa egin dezaten eta gaiaren inguruko beraien ezagutza eta usteak ezagutzeko galdetegi txiki bat sortzea erabaki nuen (2. eranskina). Behin ikasle guztiak korroan jarrita zeudela baliatuz, egingo genuena azaldu eta beraien harreta bereganatu ostean, banan-banan prestatutako galderak botatzen hasi nintzen. Ikasleak gelako kideen txandak errespetatuz beraien beldurrak partekatzen hasi ziren, egia esan orokorrean inolako zailtasunik gabe gai honen inguruan hitz egiteko abilezia zeukaten, horrez gain, nozi eta zergaitik sentitzen duten beldurra ere partekatu zuten beste askok, baita nork laguntzien dien beldur direnean edota zerk laguntzen dien beldurra izan ondoren lasaitzen ere. Galdera hauek planteatu ondoren jasotako erantzunak biltzea erabaki nuen, eta askotarikoak izan ziren arren, nabarmenenak eta ondorioztagarrienak erabiltzea izan da nire erabakia (3. eranskina).

Aurrezagutza fase honi amaiera emateko, bigarren jardurea txiki bat egitea erabaki nuen, eta rol aldaketa bat egin nuen, ni izan nintzen nire beldurren inguruan hizketan aritu zena eta kasu honetan ikasleak entzule bihurtu ziren. Nire beldurrak beraiekin partekatzea erabaki nuen, baita beldur naizen momentuetan zer egiten dudan ere eta zerk laguntzen didan beldurrak baretzen. Horrez gain, aurretik nik beraiei galderak egiteko aukera izan nuen bezala beraiei ere galderak egiteko aukera eman nien eta egia esan galdera oso interesgarriak irten ziren eta oso gogotsu aritu ziren jaruderaren zati honetan. Ariketa txiki honekin, ikasleek beldurrak izatea guztiz ohikoa dela ulertzea nahi nuen, ez beraientzat bakarrik, hau da, beraiek beldurra daukaten bezala eta batzuetan laguntza behar izaten duten bezala, nagusiok ere beldurrak ditugula barneratzea nahi nuen eta baita batzuetan guk ere kanpoko laguntza behar izaten dugula beldurrei aurre egiteko ere.

Bigarren atal honetan, Juan Kruz Igerabideren *Jonas eta hozkailu beldurtia* ipuina landu da, 1999. urtean haur literaturan Euskadi saria jaso zuena. Jada aurretik aipatu bezala, istorio honetan, Jonas bakarrik geratu da etxean bere ama dendara doan bitartean. Beldurrak Jonas jaten du, eta etxeko gauza guztiak ere beldur direla iruditzen zaio Jonasi. Beldurra gero eta handiagoa da, izu hutsa bihurtu arte. Gero eta beldur handiagoa dauka eta bere bihotza taunpa! taunpa! dabilela azpimarratzen du behin eta berriz, horrez gain beldur garenean egin ohi ditugun eta gure gorputzak izaten dituen beste hainbat jarrera ere deskribatzen ditu. Jonasen irudimenean otsoaren irudia eraikitzen da. Hozkailua dardarka dago, eta hozkailua ere beldur da. Hozkailua ez da bakarrik beldurtzen, otsoa hozkailuaren barruan dagoelako baizik.

Hirugarren eta azken fasean, esku-hartze honi amaiera emateko, azken jardura bat propoasatu nien ikasleei, beraien beldurren inguruan zein nire beldurren inguruan hizketan aritu ondoren, eta Jonasen beldurrak ezagutu ostean, beraien beldurrak marrazki baten bidez adierazteko eskatu nien. Egia esan, hasieran pixka bat zaila irduditu zitzairen jardura izan zen arren, pixkanaka koloreak nahastuz eta irudi desberdinak eginez emaitza oso onak jasotzea lortu nuen. (4.eranskina)

### 5.3. Juan Kruz Igerabideri egindako elkarrizketa

Lanaren garapenari amaiera emateko, Juan Kruz Igerabideri egindako elkarrizketaren (5. eranskina) inguruko informazioa bilduko da. Sortutako elkarrizketa hau bost galderaz osatuta dago. Egindako galdera hauek funtsezkoak izan dira liburuan landutako beldurrak sakonago ulertzeko eta egindako lan hau aberasteko. Galdera hauek planteatzean, hainbat kontzeptu argitzea, ikuspegi anitzak aztertzea eta informazio gehigarria nireganatzea lortu dut. Esan beharra daukat, oso interesgarria izan dela elkarrizketa hau egitea, eta nahiz eta erantzunetako batzuk ez dira uste nuen bezalakoak izan, txundituta utzi naute.

Igarabideren ustez, ipuin tradizionalek aspalditik erakutsi dute emozioak identifikatzeko eta eraldatzeko beste ikuspegi bat dagoela: bide sinbolikoa. Ipuinek emozioak eta sentimenduak modu sakon eta sinbolikoan aurkezten dituzte, haurrak bere emozioak modu berezi eta pertsonalean ulertu eta senti ditzan ahalbidetuz. Emozioak ez dira eskolan teknikoki eta ebaluazioz lantzeko gai bat, baizik eta hainbat arte-adierazpenen bidez (ipuinak, marrazkiak, dantza, musika...) modu sortzailean bizitzeko gai bat.

Poesia tresna paregabea da emozioak ezagutzeko, ñabardurak identifikatzeko eta modu pertsonalean esperimintatzeko. Zalantzan jartzen da nola txertatu ikuspegi hori eskola egituratu batean, eta gogoeta egiten da haurrari espazio libreak eskaintzearen garrantziaz, bere bizitza eta ikasteko nahia gara ditzan.



## 6. Emaitzak eta ondorioak

Lanaren azken zati honetan, alde batetik, marko teorikoa egiteko erabilitako eta aztertutako autoreen ideietatik abiatutako hausnarketa bat egingo da, beste alde batetik, *Jonas eta hozkailu beldurtia* ipuinaren azterketa egin ondoren ateratako ondorio nagusiak zehaztuko dira baita Igerabideri egindako elkarrizketan ateratakoak ere.

Jarraian, egindako lanetik ateratako ondorioak aurkeztuko dira, eta funtsezko aurkikuntzak eta hezkuntza-jarduerarako gomendioak nabarmenduko dira. Ondorio horiei esker, literaturak haur hezkuntzako beldurrek lantzean izan dezakeen eragin positiboa ulertu ahal izango da, baita horiek ezartzeko estrategia eraginkorrenak ezagutu ere.

Lehenik eta behin, haur-literaturak, haurrei beren beldurrak identifikatzen eta ulertzen lagun diezaieke. Antzeko egoerei aurre egiten dieten pertsonaiekin istorioak irakurtzean, haurrek harremanak izan ditzakete eta ulertuak senti daitezke, eta horrek segurtasun- eta normaltasun-sentsazioa ematen die. Liburu hauek irakurtzeak hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren sustapenean ere lagunduko du. Haurrek beren beldurrak eta emozioak adieraz ditzakete istorioetan pertsonaien eta ekitaldien arteko elkarrizketaren eta eztabaidaren bidez. Pertsonaien lekuan jartzeko eta ikuspegi desberdinak ulertzeko aukera emanik.

Beraz, esan dezakegu, haur-literatura haur-hezkuntzako beldurrak lantzeko tresna baliotsua dela. Haurren esperientzia emozionalak islatzen dituzten istorioen bidez, liburuek laguntza emozionala, aurre egiteko estrategiak, enpatia eta beren beldurrak esploratzeko eta gainditzeko ingurune segurua eskaintzen dizkietelako. Honen adibide daukagu, esku-hartzea egiteko erabilitako *Jonas eta hozkailu beldurtia*, haurrek beren esperientziekin erlaziona dezaketen eguneroko egoera aurkezten baitu bertan. Gainera, historiak aukera ematen du beldur irrazionalak eztabaidatzeko eta horiek gainditzen laguntzeko.

Ezezagunenganako beldurra haur askok sentitzen duten zerbait da, eta hozkailuaren barruan egon daitekeenaren beldurra beldur horren irudikapen sinbolikoa da. Liburuak

beldur hori esploratzeko eta hurrei ulertzen laguntzeko modu dibertigarri eta eskuragarria eskaintzen du. Istorioak ikuspegi ludikoa eta umoretsua erabiltzen du beldurraren gaia lantzeko. Horren ondorioz, haurrak erosoago senti daitezke beren beldurrak lantzean, modu ez mehatxagarri eta entretenigarrian agertzen baitira.

Gainera, liburu honetako pertsonaia nagusia, Jonas, beldurra sentitzen duen ume bat denez, liburua irakurtzen duten haurrak liburuarekin identifikatzen direla ikusi da, horrez gain, ulertuta sentitzen dira, eta horrek empatia eta irekitasun handiagoa sortzen du bakoitzak beren beldurrak eztabaidatzeko.

Lan honen oinarri izan den liburuaren egilearekin, Juan Kruz Igerabiderekin izandako elkarrizketa egiteak, onura esanguratsuak eskain dizkidala esan beharra dago. Alde batetik, elkarrizketan izan ditu zalantzak argitzeko, informazio gehigarria lortzeko eta liburuaren alderdi espezifikotan sakontzeko oso baliagarria izan da. Edukiari, idazketa-prozesuari, pertsonaiari edo landutako gaiei buruzko ikuspegi zabalagoa ere eskaini dit, eta horrek aberastu egiten du egindako lanaren ulermena.

Azkenik, esan behar dut elkarrizketa baliagarria izan dela nire eta liburuaren sortzailearen arteko lotura pertsonala sortzeko. Honek, egilearen lana gehiago estimatzea eta obraren atzean dauden asmoak eta motibazioak sakonago ulertzeko aukera emanik. Gainera, liburuari eta haren gaiari buruzko ikuspegi paregabeak lortzeko balioa izan dut. Egindako lanerako ideia baliotsuak eta ikuspegi berritzaileak emaniz. Egilearen ikuspegiak dimentsio gehigarria eman didate liburuaren azterketa eta interpretazioa egiterako orduan, lanaren kalitatea aberastuz.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak

### 7.1. Aztertutako liburuaren erreferentzia bibliografikoa

Igerabide, J.K. (1998). *Jonas eta hozkailu beldurtia*. Aizkorri.

### 7.2. Oinarrizko erreferentzia bibliografikoak

Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Revista de investigación educativa*, 21(1), 7-43.

Bisquerra Prohens, A., Cabero Jounou, M., Filella Guiu, G., García Navarro, E., López Cassà, È., Romero Moreno, C., & Oriol Granado, X. (2011). Educación emocional: propuestas para educadores y familias. 249-259

Bisquerra, R. (2009). *Psicopedagogía de las emociones*. Síntesis.

Bizkarra, K. (2018). Emozioen kudeaketa eta osasuna. *Berria*. Honako webgune honetatik berreskuratuta:

<https://www.berria.eus/paperekoa/1896/013/002/2018-08-29/emozioen-kudeaketa-eta-osasuna.htm>

Etxaniz, X. & Lopez, M. (2001). Euskal haur gazte literaturaren sistemaren eraketa. *Revista de Psicodidáctica*, 12, 213-227

Gutiérrez, A., & Moreno, P. (2012). *Los Niños, el Miedo y los Cuentos*. Desclée de Brouwer.

Marina, J. A. (1996). *El laberinto sentimental*. Anagrama.

Marina, J. A. & López, M. (1999). *Diccionario de los sentimientos*. Anagrama.

Osoro, K. (2004). Por qué y para qué leer o contar cuentos a los niños. *Aula libre*. 30-33

Pérez, M.D. (2009). El miedo y sus trastornos en la infancia. Prevención e intervención educativa. *Revista de Pedagogía de la Universidad de Salamanca*, 12, 123-144.

Rábade, M. (2015). *Afectos y espacios. Cartografías del afecto*. Honako webgune honetatik berreskuratuta:

<https://www.arcgis.com/apps/MapJournal/index.html?appid=1f11efdc101f4d26ae1f0c70f95890d7>

Real Academia Española (2014). *Diccionario de la lengua española*. Espasa.

Zubeldia, I. (2000). Haur eta gazte literatura euskaraz. *EGAN*, 53 (3-4). 151-152

X.X. (2018). Emozioak bizitzako ipar. *Hik Hasi*. Honako webgune honetatik berreskuratuta:

[http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20181029/Emozioak\\_\\_bizitzarako\\_ipar](http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20181029/Emozioak__bizitzarako_ipar)